

# TOLOSA

(Jarraipena.)

## URI CHIKIYEN ELKARTEA

Gipuzkoan zan uri-rik ospetsuenetakotzat zegon Tolosa-ko uria.

Oihenarte-ko Arnaldo-k ala aitortzen du bere liburu *Notitia Vasconiae*, esanaz: *Tolosa ad confluentes Orii atque Araxis amnium sita, mediterraneum hujusce dictionis urbium principatum tenet.*

Uria-ren barrutian zeuden, ez, bakarrik murruz esitutako lurrak, baizik gañera, Aldaba, Done Esteban, Done Blas, Monteskie, Urkizu, Auso-chiki ta Done Luzi-ko echadiak.

Ala beaz uria-ren mugak dira: ifar aldetik Anoeta, Irura ta Ernialde, egotik Ikaztegieta, Alegri ta Altzo, sortegitik Ibarra ta Berrobi, ta Albistur sartaiza aldetik.

Amalau garren eunkidan uri chikiyak laguntzaren biarran arkitzen ziran: batetik naparrak beren irtaldi gorrototsuekin ikaraturik zeukazkiten jende guziyak, bestetik alde-nagusiak sortutako guda zitalaren bitartez etzeukaten ordu bat onik.

Tolosa-ko inguruan zeuden uri chikiak etzezateken arren laguntza bezin onik arkitu iñon, ta berakin egin zuten elkarte ta beraren lagunpian gelditu ziran.

Lenengo elkartutako urichoak abek ziran; Abalzizketa, Altzo goikua ta bekua, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belaunza, Berastegi, Berrobi, Elduayen, Ernialde, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Leaburu, Lizarza, Orea ta Orendain.


Ontarako egin zuten biar zan agiria 1374<sup>-garren</sup> urtian, ta ontzat eman zuben Burgos-en Juan lenengo erregeiak 139<sup>-ko</sup> Agorriaren 16<sup>-an</sup>.

Geruago bildu ziran elkarte ontan bertan, Amasa ta Irura antolatutarik 1387<sup>-garren</sup> urteko Azaroa-ren 13<sup>-an</sup>. Garzia Martinez Echezarreta-ren

aurrian egintzan agiria-ren bitartez. Len aitatu dan erregiak berak eman zuben ontzat Medina de Kanpo-n 1392-ko Irailla-ren 3-an.

Urte guchi barru etorri zan elkarte ontara Albistur, egin zuben agiria 1389-ko Azaroa-ren 5-an eta ontzat eman zuben Burgos-en erregiak, 1392-ko Otsailla-ren 22-an.

Era berian elkartu ziran Alegri ta Zizurkil 1391-ko Ilbeltza-ren 21-an,



ANDOAIN.—Sorabilla-ko eleiza.

Alkiza, 1396-ko Azaroa-ren 29-an, baita Asteasu ta Aduna-re oraindik lenago, ta azkenik Andoain 1475-garren urteko Otsailla-ren 7-an.

Ainbeste uri chiki bereganatu zitubedian, ez dago zer esanik zenbaterañokua zan Tolosa-ren nagusitasuna, zer aundi ta ospetsu entzuten zan bere izen leñargia.

Tolosa-ko alkatiak agintzen zuben Gipuzkoa guziyaren seitatik bation, etzan orduban esagutzen ainbesterañoko nagusitasunik zeukarren uririk.

Gipuzkoa-ko batzar-nagusian ere lenengo esagutzen zan Tolosa, ta beraren izenian zegon lenengo eserlekua, *korrejidorearen* ondorian. Subak, 2333 izan biar zuten orduban Gipuzkoa guzian, ta abetatik esagutzen zitzaizkan Tolosa-ko uria-ri 356 eta erdi.

Asiyeran esan degun bezela uricho oyen elkarte laguntza bearra izantzán, ta biarrian arkitu ziran bitartian bakarrik iraun zuben.

Aide-nagusien gudak amaitu ziran noizbait ere, Naparrua aldeko bildurrak alde egin zuten erridi ori España-ren mendian gelditu zan ezkeroztik, eta pakian bizitzeko ichurak ziran eutsirik gogorki lanari euskaldun jatorrak bezela.

Orduban bere buruben jabe egin naizuten uricho guziak, etzuten kanpoko nagusirik ikusi nai, beren alkatiak nai zituzten ez kanpotarrak; eta banaka, banaka, batzubek lenago, bestiak geruago elkartetik denak alde egin zuten.

Andoain, Alkiza ta Aduna etziran luzaro egon Tolosa-ko elkartean. Noiz nai ziran Donostiya-kin, noiz nai Tolosa-kin, beren jaben egin ziran arte bi lenengoak. Aduna egon da Donostiya-kin orain urte guchi arte.

Asteasu-k ere laister alde egin zuben Tolosa gandik.

Baña okerrik aundiena 1435-<sup>garren</sup> urtian gertatu zan, diru kontu ez ta bai batzubek izan zituzten ta bakoitza bere aldetik an juan ziran Amasa, Anoeta, Belaunza, Berastegi, Zizurkil, Elduayen, Gaztelu, Iru-ra, Leaburu, Lizarza ta Orexa.

Ga erakuak maki acho bat urte iraun zuten oraindik, ba a 1615-<sup>garren</sup> urtian beren jabe egin ziran Abalzizketa, Albistur, Alegri, Altzo, Amezketa, Baliarrain, Ikaztegieta ta Orendain; eta azkenian 1802-<sup>garren</sup> urtian alde egin zuten Ernialde ta Ibarra-k.

Mendiyán artaldiak bezela agertzen dira orain Tolosa-ren inguru guziak uri chiki polit, alayez betiak, lenago Tolosa-ko alkatia-ren mendian zeuden, orain bakoitzak an dauka bere alkatia.

Uri onen aunditasuna ikustian uste izango da zaletuko dirala beste chikiyak; bañan ez, uri ontako eche batian irakurtzen dan bezela esaten dute urichoetakuak:

«Aundiya edo chikiya  
bakoitzak bere kabiya.»

HERMENEGILDO SUSTAETA

# TOLOSA

(Jarraipena.)

## EGIPEN ATZEKABEAK

Gizonak, ludi onen gañian bere buruba arkitu zubenetik, ez du izan, gorputzari dagokiyon ontasunetan, gauza zoragarriagorik, subaren asmatze eda sortzea añakorik.

Zenbat poztu ziran gure guraso zarrak suba arkitu zutenian, ez liteke esan. Suba izan da alaitasun aundiyena gizonarentzat ludiaren lenengo egunetan.

Eta gauza arrigarriya, suba lenengo postasun ta alaitasuna izanagatik, uri guzietako kondairetan arkitzen da beti, lenengo zorigaiztua, lenengo atsekabea subak sortuba izan dala.

Ori bera gertatzen da Tolosa-ko urian. Lenbiziko sualdia 1282<sup>-garren</sup> urtian izantzan, su ta gar erri guziya kiiskalitzeko zorikua, geyena chetu zan ta gelditu ziran ondaturik baztar alai guziyak. Atsekabe aundiya irauñ zuben Tolosa-ko uriak 1282<sup>-garren</sup> urtian.

Sancho laugarren erregeiak Burgos-en 1285<sup>-ko</sup> Epaillaren 30<sup>-an</sup> ta 1286<sup>-ko</sup> Orrillaren 12<sup>-an</sup> eman zituben erabakideeten laguntza zenbait opaziyon uria-ri, alcha zedin ainbeste zorigaizto eman zizkan kalte izugarri ayetatik.

Beste sualdi bat, lengua bezin gogorra ez izana gatik kalte naikua uria-ri egin ziyona, 1469<sup>-garren</sup> urtian izantzan.

Gipuzkoa-ko batzar-nagusiya Elgoibar-en bildu zan urte artan, ta laguntzea gatik Tolosa-ko uria-ri bere atsekabeetan, barkatu zizkan amabost urtian ordaindu biar zituben sukotitzaren emanak.

Baña sualdi ikaragarriena 1503<sup>-garren</sup> urtian gertatua da. Orduban arraz ondatu zan uria, baztar guziak kiiskaldu ziran; esan liteke etzala gelditu ezercho-re suak ondatu gabe. Andre Maria-ren eleiza bera, beste

echi etatik baztartua egonagatik, alaz guzichaz erre zan oso. Ondapen izugarriya, kalterik gogorrenatakua izan zan sualdi ura.

Urte artan Gipuzkoa-ko batzar nagusiya Ondarrabi-ko urian bildu zan, ta esaguturik zerbaterañoکو kaltiak izan zituben Tolosa-ko uriak, erabaki zuben barkatzia amar urtian sukotitzaren gatik ordaindu biar zituben dirubak. Errege katolikuak berak ere atsekabe aundiya izan zuten jakin zutenian Tolosa-n gertatutako zorigaiztua, ta 1505-<sup>ko</sup> Il-beltzaren 8-<sup>an</sup> Toro-n eman zuten eskutitzan agintzen ziyen bere urizaile edo korrejidoreari, Tolosa-n bizitzeko ta uri ontatik ez irteteko biar biarreko juan aldiyetan baizik. Eta erabakide au artzen zan alik eta laguntzarik aundiya Tolosa-ri ematia gatik uria berriro jasotzeko.

Ikusi ditugu subak egintako kaltiak; suba urak itzaltzendu, ortarako ez da charra ura; baña urak berak ere badakizki naikua kalte egiten, ta Tolosa-n egin izan oi ditu makiñabat aldiz.

Nola uri au oso bian egiña dagon, ta gañera daukan aldamenian ibaia, eta biribiltzen duten mendi tantai, zorrotzak; urak beren aunditasun azkotan bete izan dute uria kalte aundiya egiñaz.

Ugalde aundienetako bat 1678-<sup>ko</sup> Agorrillan esagutu zan. Mikeo edo Errementarien kalian ta Korrio kalian bi kana igo ziran urak eta berdinchu beste kalietan. Andre Maria-ren eleizan bildu ziran jendiak Jaun aundia agiria-n jarririk otoi egitera kupitu zedin ainbeste zorigaiztoz, eta eleizan bertan sartu ziran urak zalaparta izugarriyan. Beste eleizetan ere egin zuben ugaldiak bere sarrera. Done Franzizko-ren eleizan igo zan ura bost oñian ta irichi zan aldare nagusiraño. Dona Klara-ren eleizan berriz bi kana igo zan; izan ere be samarrian egiña dago ta bestietan ainbeste igo zanian, ez da arritzekua emen orlako marka egitia.

Kalte aundiya egin zituben ugalde onek, bai uri barrenen ta baita kanpuan ere. Zenbait eche, Arostegi-ko kalian ta eritegiko atzian bota zituben, makiñabat murre-re lurperatu, baita irauzi-re Done Franzisko-ren eleizan obiak; batian ta bestian milla kalte egin zituben.

Geroztik Done Zipriano-ren egunian jai egiten zan Tolosa-n ta egiten zituzten eleiz jai ederrak eta kalietan donejoaitak.

Ugalde biziyak izan ziran, beste chikiyagokuak aitatu gabe, 1762 eta 1765-<sup>garren</sup> urtietan Garagarrillaren 20-<sup>an</sup> gertatuak (egun bera biyetan, urtiak ala ez izan arren); baita re 1787-<sup>garren</sup> urtian Garagarrillaren 19-<sup>an</sup> ta Urrillaren 7-<sup>an</sup> ta ez danetan eskasena 1801-<sup>ko</sup> Orrillaren 20-<sup>an</sup> ta 21-<sup>an</sup> izan zana. Uri guziya urez bete zan; nola egongo ziran Done

Franzisko-ren eleizan bi kanetaraño igon ziranian; ichasuan bezela, beren olatuakin zebiltzan kalietan urak.

Geroztik bi ugalde biziak esagutu dira: bat 1831<sup>-ko</sup> Ilbeltzaren 28<sup>-tik</sup> 29<sup>-ra</sup> ta bestia 1862<sup>-ko</sup> Agorrilleko 16<sup>-en</sup> goizian. Lenbizikua zan biyetan gogorrena, eche guziyak urez bete ziran; esan oi da lenago aitatu degun ugaldian baño kana laurden bat geyago urak igo zirala.

Beste atsekabeak ere esagutu dira Tolosa-n; abek dira gaitz, elde ta izurriak.

Abetatik bat 1707<sup>-garren</sup> urteko Uztaillan ta Abustuban izantzan. Almansa-ko guda-n arrapatu zituzten gudulari arerioak zamazkiten Frantzira ta aruntzian Tolosa-n gelditu ziran. Ayek ekarri zuten elde izugarribat, zerzan ez dakiguna, baña bai asko zabaldu zala ta naikua eriyotz izan zala. Gudulari arerioak alde egin zutenian eldeak ere alde egin zuben. Obia zan alde egiteko.

Beste izurri bat azaldu zan 1784<sup>-ko</sup> Epailian ta iraun zuben beste illabete batzubetan. Jende asko galdu zan bati bat beartzuben artian. Uriak alegiñak egin zituben izurri ura amaitzeko garbitasunezko lanak echietan ta kalietan egiñaz, eta azkenik amaitu zan urte bereko Uztaillan.

Ainbesterañokuak ez izan arren esagutu dira elde ta gaitz kutzukorrrak 1794<sup>-an</sup> (Frantziakin gudarako gudulariak emen egon ziranian) 1804<sup>-an</sup>, 1808<sup>-an</sup> ta 1828<sup>-an</sup>.

Bañan ez da gaitzik esagutu 1854<sup>-garren</sup> urteko kolera alakorik. Geroztik kolera-urtia deitzen zayo leku abetan urte zorigaiztoko arri.

Europa guziyan egin zituben kalte ikaragarriak eta Tolosa-n ere naikua malco išuri azi zituben.

Alliri deitzen dan baserriyan agertu zan lenbiziko, Tafalla-tik etorritako kanpotar baten bitartez. Laster ziran Ibilli ta Torreia izendatuta-koetan, beriala eritegian ta azkenik uri guziyan.

Guchi asko zerbait izan gabekorik guchi geldituko ziran; ta egiaz gaitzak arrapatutakuak 743 lagun ziran, abetatik 314 gizaseme ta 429 emakume; ta il ziran 380, au da 169 gizaseme ta 211 emakume.

Sendi guchi izango ziran norbait galdu etzutenik gaitz ikaragarri onekin.

Ez dezagula kolera-urterik geyago esagutu.

HERMENEGILDO SUSTAETA

(Jarraituko da.)

# TOLOSA

(Jarraipena.)

## TOLOSA-KO SEME AGIRIDUNAK

Tolosa-ko urkondeak arkitu ziran 1341-<sup>garren</sup> urtian uste gabeko berri batekin: erregeren sari-eskatzalleak biartu nai zituzten obikotitza ordaintzera. Tolosarrak orduban bigaldu zuten Alonso XI-garren erregearen gana, beren alkate Lope Sanchez Yurreamendikua, jakiñen gañian jartzeko asmuakin, etzeukatela alako gauzarik eskatzeko eskubiderik.

Erregek agindu ziyen Lope Diaz de Rojas, Gipuzkoa-ko merio nagusiya ta Pedro Ibañez Urbietta-ko bertako seme agiridunek alkatia-i, ikusi ta asaldu zezatela zein ziran Tolosa-ko urian, Kastilla-ko legiak agintzen zuben bezela, aitona ta aita gandik seme agiridunak ziranak.

Eta ara nola egin zuten erregearen agindua:

«Era-ko milla irureun ta larogei ta laugarren urteko amaika garren egun ostegunian (J. K. 1346) uri ontako (Tolosa-ko) Dona Mariaren eleizan, guk esantako Lope Diaz (de Roxas, Erregearen merio nagusiya) eta Pero Ibañez (Urbietta-kua, Aiztondo-ko alkatia), Pero Martinez (Zarauz-kua) eta Juan Sanchez (Arraya-kua) eskribauak eman genien liburu Misala ta Ebanjelio doneak eta gurutzia, ziñez egin zezaten Tolosa-ko ta bere barrutiko seme agiridun, apaiz eta nekazaiak, uri-ko gizonak agerturik seme agiriduntzatzekazkitela.»

Lagun bakoitzak sei testigu ekarri zituen, lau seme agiridunak ta bi errege-<sup>ren</sup> nekazariyak, eta guziyak «jarri zituzten beren eskubak liburu Misal eta Ebanjelio doneen gañian ta ziñez egin zuten nola (emen billakindariaren izena) (bere aitaren izena) semia, ziñez egitera etorri ziranaren gatik, ziñez egiten zutela, agiridun semia dala aitaren ta aito-

naren gandik, ala beñere ez aitonak, ez aitak, eta ez berak etziyotela beñere ordaindu ez erregeri, ez beste iñor jauni, ez diru, ez obikotitz, ez beste pecharik; eta berak ez daukala zergatik ordaindu, ta agiridun semia dala, ta ala ziñez egin zuten».

Jibraltar-ren 1349-<sup>garren</sup> urteko Abuztua-ren II-<sup>an</sup> eman zuben erregeak eskutitza, ontzat emanaz Tolosa-n egintzan ageriya. Ara nola diyon (1):

«Eskutitz au ikusten dutenak jakin bezate nola nik Alfonso, Jaungoikua-ri eskerrak Kastilla-ko, Leon-go, Galizi-ko, Sebilla-ko, Kordoba-ko, Murzi-ko, Jaen-go, Algarbe-ko, Aljezira-ko errege, ta Molina-ko Kondadu-ko jauna; nola Gipuzkoa-n dan Tolosa-ko seme agiridun urko ta bizitegiliai bigaldu ziraten ni gana bertako urko ta alkate Lope Sanchez Yurramendi-kua adieraztera nere aurreko erregiak emantako eskutitzen bitartez pecha guziz barkatuak dirala, ta alare, nik Gipuzkoa-n daukazkitan pecha eskatzalliak gogorrian ateratzen dizkatela eman biarrik ez izan arren; nola diran seme agiridunak eta gañera dituzten erregeen eskutitzak geronek ontzat emanak, eta ayen bitartez aginduba daukagu ez dezatela pecharik ordaindu uri artara bizitzera dijuazen seme agiridunak, eta eskatzen digute gorde asi ditzagula, ta ontarako erakutzi ziguten Sancho erregea-ren eskutitza, larruz-ko bilorruzkian idatzia, argizaiz-ko zigillua zintzilik daukala, ta eskutitz onek esatan du uria obetuago osatzeko ta gizon obeekin, bertara zijuazen seme agiridunak etzeukatela pechik ordaindu biarrik ez beren gatik ez beren lurren gatik, eta ez dezatela ordaindu obikotitzik eta ez beste pechik, zergatik lenago bizi ziran lekuetan bezela pecharik gabe izan biar zuten. Gañera erakutzi ziguten Fernando errege gure aitaren, Jaungoikuak barka dezayola, eskutitza larruz-ko bilorruzkian idatzia, argizaiz-ko zigillua zintzilik daukala, zaitzalerik gabe emana, ta bertan ontzat emanik Sancho erregea-ren eskutitza gordetzeko agintzen da. Gañera gure eskutitza, larruz-ko bilorruzkian idatzia ta gure zigillu berunezkuakin, bertan agintzen degularik Madrid-ko batzar nagusiya egin ondorian, gorde ditezela esantako eskutitzak. Gañera erakutzi ziguten beste gure eskutitza paperian idatzia ta bizkarrian gure zigilluarekin zigillatua, an agertzen degu Tolosa-ko seme agiridunen espa aurreroko urtietan eskatzalliak pechak ordaintzera biartzen zituztelako ta gogorrian artzen zituztela esanaz etzerala seme agiridunak, orrengatik erabaki genduben eskutitz ura ematia Lope Diaz de Rojas, gure Gipuzkoa-ko Merio nagusiari ta Pero Ibañez Urbieta-kua lur ayetan seme agiridunen alkatiari esanaz egin zitizatela biar ziran billakindeak eta jakin zezatela egiya zenbat eta zein ziran seme agiridun aita-tik aiton-ara Kastilla-ko le-

(1) Juan Karlos Gerra jaunak argitaratu du «Revista de Historia y de Genealogía española» deitzen dan albistarian.

giak agintzen duben eran Tolosa-ko urian ta bere barrutian bizi diranak, eta eskribaben bitartez egin zezatela zekidora edo lista, ta beren zigilluarekin zigillatu zezatela, ta ayeke seme agiridun zirala erabakitzen zutenak ala esagutubak izan zitezela. Eta gure agindua betetzeko Lope Diaz eta Pero Ibañez-ek egin zuten agindutako billakindea ta erakutzi ziguten bilorruzkian idatzia ta zigillatua Joan Sanchez Arraya-kua Tolosa-ko eskribaba ta Pero Martinez Zarauz-ko, Zarauz bere ko eskribaben zigilluakin, ikusi asi nuben ta billakinda arren bitartez seme agiridun orain bizi ziranak, ondorengo abek dira :

- » Johan Lopez Garagarza-kua, Tolosa-ko Alkatia, ta bere anai Juan Lopez, Lope Martinez Garagarza-koaren semiak.
- » Martin Martinez Echazarreta-kua ta Johan Martinez bere anaya.
- » Martin Garcia Echazarreta-kua, Garzia Ibañez Echazarreta-koaren semia.
- » Johan Lopez Echazarreta-koa, Lope Echazarreta-koaren semia.
- » Migel Ibañez, Johan Migel Echazarreta-koaren semia.
- » Pero Martinez Elduayen-gua.
- » Lope Sanchez Yurramendi-kua, Sancho Lopez-en semia.
- » Lope Iñiguez Yurramendi-kua, Iñigo Lopez Yurramendi-kuaren semia.
- » Ochoa Sanchez, Sancho Perez Iturriza-koaren semia.
- » Johan Perez, eta Johan Lopez bere anaya, Pero Ibañez Yurramendi-koaren semiak.
- » Johan Martinez Gerekiz-kua, Migel Martinez Alzo-koaren semia.
- » Lope Garcia, Ochoa Lopez Alegri-koaren semia.
- » Lope Lopez Astigarez-kua, Lope Martinez Astigarez-koaren semia.
- » Lope Martinez Alegri-koa ta Martin Lopez bere anaya, Migel Lopez Alegri-kuaren semiak.
- » Ximen Ibañez Luzuriaga-kua, Johan Ximenez Luzuriaga-kuaren semia.
- » Sancho Martinez Goyaz-kua, Martin Sanchez Goyaz-kuaren semia.
- » Johan Iñiguez Goyaz-kua, Domingo Sanchez Goyaz-kuaren semia.
- » Migel Saez Oyanguren-gua, Sancho Ibañez-en semia.
- » Martin Martinez Garmendi-kua.
- » Martin Garzia Eldurayen-gua, ta Pero Garzia ta Johan Garzia bere anayak, Garzia Ibañez Eldurayen-kuaren semiak.
- » Lope Andia-kua, Lope eta Fernando bere anayak, Martin Iñiguez Laskoayn-goaren semiak.
- » Lope Ibañez Salsoro-kua, Johan Martinez Salsoro-kuaren semia.
- » Johan Migel Laskoayn-goa, Migel Ibañez Laskoayn-goaren semia.
- » Johan Martinez, Garzia Laskoayn-goaren semia.
- » Garzia, Martinez Ibañez Andrabelaskita-kuaren semia.
- » Martin Ibañez, Johan Migelez Laskoayn-goaren semia.
- » Martin Ayesta-kua, Pero Ibañez Laskoayn-goaren semia.
- » Iñigo Legarrakua, Donmino-ren semia.

- » Martin Ibañez Legarra-kua, Johan Legarra-kuaren semia.
- » Johan Martinez Diaz-kua, Martin Ibañez Laskoayn-goaren semia.
- » Martin Ibañez Laskoayn-gua, Johan Migelez Laskoayn-goaren semia.
- » Migel Aliri-kua, Dominget-en semia.
- » Pero Martinez Laskoayn-gua, Martin Perez Laskoayn-guaren semia.
- » Migel Martinez Alzusta-kua, Martin Ibañez Alzusta-kuaren semia.
- » Martin Migel, Migel Sanchez-en semia.
- » Martin Perez Tapia-ha, ta Johan Perez eta Johan Perez, Pero Migel Tapia-kuaren semiak.
- » Diego, Lope Sancho, Jaunaberatzaren semia, Juan Enrikez Zuazketa-kuarensemia.
- » Pero Lopez Anzeta-kua, ta Ineso Lopez bere anaya, Lope Anzeta-kuarensemiak.
- » Martin Perez Berrasoeta-kua, Pero Ibañez Berrasoeta-kuaren semia.
- » Lope Ortiz Eginokua, Fortun Ximenez Eginokua-kuaren semia.
- » Pero Elduayen-gua, Migel Martinez Elduayen-guaren semia.
- » Johan Sanchez, Sancho Migel Elduayen-guaren semia.
- » Garzia Elduayen-gua, Migel Garzia Elduayen-guaren semia.
- » Johan Migel Elduayen-gua, Johan Iñiguez Elduayen-guaren semia.
- » Martin Ibañez Elduayen-gua, Johan Migel Elduayen-guaren semia.
- » Johan Ibañez Berastegi-kua, Johan Lopez Berastegi-kuarensemia.
- » Martin Garzia Berastegi-kua, ta Migel Garzia bere anaya, Garzia Migel Berastegi-kuaren semiak.
- » Garzia Martinez eta Johan Martinez, eta Martin Martinez Elduayen-guak, Martin Bulazia-kuaren semiak.
- » Juan Ochoa Echazarreta-kua, Ochoa Ichaso-kuaren semia.

## HERMENEGILDO SUSTAETA

(Jarreituko da.)



# TOLOSA

(Jarralpena.)

- » Johan Iñiguez Ikaztegieta-kua, Iñigo Martinez Ikaztegieta-kuaren semia.
- » Johan Perez, Pero Martinez-en semia.
- » Martin Migel Erama-kua, Migel Ibañez Erama-kuaren semia.
- » Pero Martinez Ochaybia-kua, Iñigo Diaz Urdaneta-kuaren semia.
- » Martin Ibarra-kua, Martin Zufiri-kuaren semia.
- » Garzia Lopez Echazarreta-kua, Lope Martinez Laskoayn-goaren semia.
- » Lope Ibañez Billafranka-kua, Johan Perez Amazan-guaren semia.
- » Johan Lopez, Lope Ibañez Billafranka-kuaren semia.
- » Lope Lopez, Pero Ibañez Billafranka-kuaren semia.
- » Johan Martinez Ayzarna-kua, Martin Perez Belaunza-kuaren semia.
- » Johan Martin Irazazabal-kua, Martin Perez Irazazabal-kuaren semia.
- » Montesin Eraso-kua ta bere anai Pero Lopez Montesin, Lope Lopez Eraso-kuaren semia-k.
- » Pero Martinez Tapia-kua, Martin Fernandez Tapia-kuaren semia.
- » Martin Perez Echazarreta-kua, Pero Lopez Zuume-kuaren semia.
- » Johan Garzia Belaunza-kua, Garzia Obillos-kuaren semia.
- » Migel Ibañez, Johan Migel Belaunza-kuaren semia.
- » Martin Sanchez, Sancho Martinez Berrobi-kuaren semia.
- » Fortun Perez Oyararte-kua, Pero Ortiz Oyararte-kuaren semia.
- » Migel Ibañez Leyza-kua
- » Johan Martinez Echazarreta-kua, Martin Perez Otazu-kuaren semia.
- » Ochoa Sanz Leaburu-kua, Sancho Ibañez Leaburu-kuaren semia.
- » Sancho Ibañez Alkiza-kua, Johan Perez Alkiza-kuaren semia.
- » Martin Martinez Balyarrayn-gua, D. Martino Balyarrayn-guaren semia.
- » Pero Ibañez, Johan Perez Balyarrayn-guaren semia.

- » Martin Ayzeta-kua ta bere anai Iñigo, Johan Ayzeta-kuaren semia-k.
- » Martin Garzia Zaldibi-kua, Garzia Zaldibi-kuaren semia.
- » Pero Ibañez Billafranka-kua, Juan Ximenez Ichasondo-kuaren semia.
- » Johan Garzia Ataun-gua, Garzia Perez Ataun-guaren semia.
- » Johan Lopez Otazu-kua, Lope Perez Elduarayen-guaren semia.
- » Lope Ibañez Lazkaibar-kua, Johan Martinez Lazkaibar-kuaren semia.
- » Migel Martinez Irura-kua, Martin Migel Irura-kuaren semia.
- » Pero Echabe-kua, Migel Martinez Echabe-kuaren semia.
- » Ochoa Yarza-kua, Ochoa Yarza-kuaren semia.
- » Lope, Iñigo Ochoa Yarza-kuaren semia.
- » Johan Martinez Aldaz-kua, Martin Zuri Aldaz-kuaren semia.
- » Martin Adan, Adan Yarza-kuaren semia.
- » Martin Ibañez Argarain-gua, Johan Martinez Argarain-guaren semia.
- » Martin Sanchez, eta Pero Sanchez, eta Johan Sanchez, eta Lope Sanchez, eta Sancho Sanchez, eta Migel Sanchez, Sancho Garzia Arraya-kuaren semia-k.
- » Garzi Lopez eta bere anai Martin Lopez, Lope Mentira-ren semia-k.
- » Pero Ibañez Agirre-kua, eta bere anai Lope Ibañez, Juan Suarez-en semia-k.
- » Iñigo Lopez Inkiarza-kua, Don Lope Inkiarza-kuaren semia.
- » Martin Amaro-kua.
- » Johan Iñiguez, Iñigo Legorreta-kuaren semia.
- » Garzia Castillo-kua, ta bere anai Don Migel, Migel Urdaneta-kuaren semia-k.
- » Ximeno Iraola-kua, Pero Sanchez Iraola-kuaren semia.
- » Sancho Migel Alkiza-kua, Don Migel Alkiza-kuaren semia.
- » Lope Ximenez, Ximeno Zaldua-koaren semia.
- » Sancho Alkiza-kua, Sancho Alkiza-kuaren semia.
- » Johan Ibañez Baitikar-kua, Johan Martinez Baitikar-kuaren semia.
- » Johan Lopez, Lope Sanchez Beretesagasti-kuaren semia.
- » Johan Perez, Pero Iñiguez Beretesagasti-kuaren semia.
- » Pero Otoayn-gua, Martin Asnarez-en semia.
- » Johan Ortiz, Fortun Lopez Leaburu-kuaren semia.
- » Migel, Migel Martinez Otoayn-guaren semia.
- » Martin Migel, Migel Martinez Ikerategi-kuaren semia.
- » Johan Sanchez, Sancho Beretesagasti-kuaren semia.
- » Sancho Martinez Ernialde-kua, ta bere anai Migel Martinez, Martin, Garzia Alkiza-kuaren semia-k.
- » Lope Sugar, Johan Sanchez Ipuz-en semia.
- » Lope Migel Alkiza-kua, Migel Martinez Alkiza-kuaren semia.

- » Martin Sanchez, Sancho Perez Iribetia-kuaren semia.
- » Martin Ibañez, Martin Ibañez Mendigaray-kuaren semia.
- » Migel, Johan Iñiguez Astalarraza-kuaren semia.
- » Martin, Martin Migel Azaldegi-kuaren semia.
- » Johan Martinez, Martin Ibañez Salugarate-kuaren semia.
- » Migel Ibañez eta Johan, Johan Azaldegi-kuaren semia-k.
- » Pero Migel, Migel Perez Urruzola-kuaren semia.
- » Migel Zakayo-kua, Migel Zakayo-kuaren semia.
- » Martin Migel, Migel Martinez Gondura-kuaren semia.
- » Sancho Garzia, Johan Garzia Soroa-kuaren semia.
- » Johan Martin, Martin Migel Nagiola-kuaren semia.
- » Johan Garzia Gainza-kua, Garzia Perez Gainza-kuaren semia.
- » Sancho Ibañez Belastegi-kua, Migel Martinez Belastegi-kuaren semia.
- » Iñigo Ibañez Elduayen-gua, Johan Garzia Elduayen-guaren semia.
- » Johan Migel eta Martin Migel, Migel Garzia Berastegi-kuaren semia-k.
- » Pero Ibañez Amezketa-kua, Johan Migel Amezketa-kuaren semia.
- » Johan Martin Iherategi-kua, Garzia Perez Iherategi-kuaren semia.
- » Pero Migel, Migel Saez Amezketa-kuaren semia.
- » Migel Anziondo-kua.
- » Johan Anziondo-kua, Martin Anziondo-kuaren semia.
- » Pero Sanz Urreyzeta-kua, Sancho Migel Urreyzeta-kuaren semia.
- » Martin Ochoa, Ochoa Perez Ataun-guaren semia.
- » Martin Martinez, Martin Ibañez Iban-guaren semia.
- » Martin Ibañez, Juan Perez Garchuri-kuaren semia.
- » Martin Ibañez, eta Pero Ibañez, eta Johan Ibañez, Johan Martinez Anoeta-kuaren semia-k.
- » Migel Martinez Arramele-kua, Migel Martinez Arramele-kuaren semia-k.
- » Johan Migel Leaburu-kua, Migel Garzia Leaburu-kuaren semia.
- » Migel Ibañez Laskoayn-gua, Johan Belaskez-en semia.
- » Martin Migel-en semia.
- » Migel Ibañez.
- » Migel Aranzies-kua, Aparizio Laskoayn-guaren semia.
- » Pero Martinez Ernialde-kua, Martin Ernialde-kuaren semia.
- » Lope Ibañez Ernialde-kua, Johan Lopez Ernialde-kuaren semia.
- » Johan Migel Ernialde-kua, Johan Sanchez Ernialde-kuaren semia.
- » Martin Martinez Ernialde-kua, ta bere anai Migel Martinez, Don Martin Migel Ernialde-kuaren semia-k.
- » Migel Martinez Ugalde-kua, ta bere anai Pero Martinez, Migel Martinez-en semia-k.
- Johan Garzia ta Martin Garzia, Pero Ibañez Leizalde-kuaren semiak.

# TOLOSA

(Jarraipena.)

- » Pero Ibañez, Jolian Perez Lariz-kuaren semia.
- » Pero Goyaz-kua, Martin Arrieta-kuaren semia.
- » Johan Sanchez Leiza-kua, Migel Sanchez Leiza-kuaren semia.
- » Don Johan Perez, Tolosa-ko bikariyua, ta Migel Perez, bere anaya, Pero Migelez Erresil-kuaren semiak.
- » Martin Perez Bildain-gua.
- » Sancho Martinez, Don Martin Perez Zabala-kuaren semia.
- » Migel Alkiza-kua, ta Pero bere anaya, Migel Ibañez Zabala-kuaren semiak.
- » Juan Perez eta Pero Migel, Pero Ibañez Zabala-kuaren semiak.
- » Martin Martinez, Martin Ibañez Zabala-kuaren semiak.
- » Migel Ibañez Mendiola-kua, Johan Garzia Mendiola-kuaren semia.
- » Pero Ibañez (eziñ irakurri da abizena), Pero Martinez-en semia.
- » Garzia Ibañez, Johan Ochoaniz Bunagain-guaren semia.
- » Sancho Martinez Aranguti-kua, Martin Sanchez Aranguti-kuaren semia.
- » Johan Perez Mendibill-kua, Pero Lopez Mendibill-kuaren semia.
- » Johan Perez Albistur-kua, Pero Saez Albistur-kuaren semia.
- » Johan Ibañez, Johan Ibañez Albistur-kuaren semia.
- » Miguel Perez, eta Johan, ta Sancho, ta Jolian Perez, Pero Ibañez Bidani-kuaren semiak.
- » Johan Martin, Martin Martinez Bidani-kuaren semia.
- » Martin Perez, Pero Martinez Albistur-kuaren semia.
- » Iñigo Ibañez, Johan Perez Ayzalde-kuaren semia.
- » Martin Perez, Pero Perez Ayzalde-kuaren semia.
- » Martin Perez, eta Santiago, ta Martin Perez, Pero Ibañez Belza-kuaren semiak.
- » Migel, Pero Migel Garraza-kuaren semia.
- » Johan Martinez, Martin Perez Egino-kuaren semia.
- » Iñigo Yarza-kua, Johan Migel Yarza-kuaren semia.
- » Lope Beretesagastikua, Martin Sanchez Beretesagasti-kuaren semia.

- » Garzia Perez Bunagaray-kua.
- » Migel Martinez Erbeeta-kua, Martin Sanchez Erbeeta-kuaren semia.
- » Johan Perez Zabalia-kua, Pero Ibañez Zabalia-kuaren semia.
- » Lope Iñiguez Oyanguren-gua, Iñigo Martinez Oyanguren-guaren seinia.
- » Jolian Migel eta Ximeno Ezkureche-kua, Aranzadi deitzen zayona, Migel Ibañez Ezkureche-kuaren semia.
- » Martin Ibañez Leaburu-kua, Migel Saez Amezketa-kuaren semia.
- » Migel Martinez Amezketa-kua, Martin Ibañez Amezketa-kuaren semia.
- » Lope ta Ochoa bere anaya, Martin Migel Leaburu-kuaren semiak.
- » Pero Tolosa-kua, Migel Iñiguez Leaburu-kuaren semia.
- » Martin Ibañez, Jolian Migel Tolosa-kuaren semia.
- » Johan Ibañez, eta Martin Ibañez bere anaya, Jolian Migel Bularia-kuaren semiak.
- » Johan Sanchez Arriba-kua, ta Pero Ibañez eta Sancho Ibañez bere anayak, Johan Asnarez Arriba-kuaren semiak.
- » Sancho Migel, Migel Obea-ren semia.
- » Garzia Lizarreta-kua, Garzia Migel Mugerza-kuaren semia.
- » Don Johan Martinez Lizarza-kua, Ikaztegieta-ko abadia, ta Migel Martinez eta Garzia Martinez, eta Martin Garzia, eta Johan Martinez, eta Ochoa Martinez bere anayak, Migel Martinez Lizarza-kuaren semiak.
- » Garzia Ximenez Iribas-kua, Ximeno Iribas-kuaren semia.
- » Pero Gainza-kua, Migel Gainza-kuaren semia.
- » Johan Ibañez Gainza-kua, Johan Ochobiz Gainza-kuaren semia.
- » Pero Martinez Arriba-kua, Martin Ibañez Arriba-kuaren semia.
- » Pero Sanchez, Sancho Gorriti-kuaren semia.
- » Johan Martinez, Martin Migel Egozkue-ren semia.
- » Migel Migelez Baraybar-kua, Migel Iñiguez Baraybar-kuaren semia.
- » Sancho Ibañez Ayzaroz-kua.
- » Pero Ibañez Berastegi-kua, Juan Ochoa Berastegi-kuaren semia.
- » Martin Migelez Albistur-kua, Migel Martinez Beetia-kuaren semia.
- » Iñigo Besusta-kua, Juan Martinez Besusta-kuaren semia.
- » Martin Martinez, Martin Erresil-kuaren semia.
- » Martin Ochoa ta Juan Ochoa, Ochoa Zuume-kuaren semiak.
- » Don Iban, Gillelmo Echakarreta-kuaren semia.
- » Jolian Migel Gorricho.
- » Migel Perez Gorostarrazu-kua, Pero Martinez-en semia.
- » Jolian Migel Gorostarrazu-kua Migel Ibañez Gorostarrazu-kuaren semia.
- » Johan Ochoa Amezketa-kua, Ochoa Garzia Liadriaga-kuaren semia.
- » Martin Garzia, Garzia Perez Albe-kuaren semia.

- » Johan Migel eta Migel Gaztelu-kua.
- » Pero Migel Belaunza-kua, Migel Martinez Ezkieta-kuaren semia.
- » Johan Ibañez, Johan Sumbill-en semia.
- » Johan Migel Johan Martinez Leaburu-kuaren semia.
- » Johan Martinez, Martin Ibañez Aranzadi-kuaren semia.
- » Johan Garzia, Garzia Granada-kuaren semia.
- » Johan Ochoa, Ochoa Zufitri-kuaren semia.
- » Sancho Ximenez Laskoayn-gua, Migel Ximenez Laskoayn-gua-  
ren semia.
- » Lope Bernardez Zumarraga-kua, Bernat Ibañez Legazpi-kuaren  
semia.
- » Pero Lopez, Lope Ortiz Idiazabal-kuaren semia.
- » Pero Sanchez eta Martin Sanchez bere anaya, Sancho Billabona-  
kuaren semiak.
- » Migel Iraola-kua, Garzia Iraola-kuaren semia.
- » Johan Sanchez Zuria, Sancho Perez-en semia.
- » Johan Ibañez Castillo-kua, Johan Sanchez-en semia.
- » Johan Ibañez, Korreo, Johan Lopez Laskoayn-gua-  
ren semia.
- » Martin Migel, eta Pero Migel, eta Migel Ibañez Urbieta-kua,  
Don Migel Perez Igoaranz-kuaren semiak.
- » Lope Perez, Pero Martinez Laskibar-kuaren semia.
- » Johan Leaburu-kua.
- » Johan Sanchez, eta Martin Sanchez Henlibia-kua, Sancho Ochoa-  
ren semiak.
- » Johan Sanchez eta Sancho Sanchez, Johan Sanchez Abezuaya-  
ren semiak.
- » Sancho Perez, Pero Ibañez Idiazabal-kuaren semia.
- » Johan Bono Gorozika-kua, Pero Sanchez Gorozika-kuaren semia.
- » Lope, ta Don Migel, eta Pero Ibañez eta Johan Ibañez, aurreko  
Johan Bono-ren semiak.
- » Pero Ibañez Alkiza-kua, Pero Ibañez Echabe-kuaren semia.
- » Nikolas, Pero Echabarria-kuaren semia.
- » Garzia, Johan Migel Zuhastia-kuaren semia.
- » Sancho Martinez Arechu-kua, Martin Lopez Arechu-kuaren semia.
- » Johan Ibañez Abendibar-kua, Johan Lopez-en semia.
- » Lope Perez, Pero Perez Garay-kuaren semia.

HERMENEGILDO SUSTAETA

(Jarraituko da.)



# TOLOSA

(Jarraipena.)

- » Johan Ibañez, Johan Sanchez Aranzia-kuaren semia.
  - » Pero Migelez Urango-kua.
  - » Iñigo Ibañez, Johan Martinez Arechu-kuaren semia.
  - » Martin Ibañez, Portal izendatua, Johan Paskual-en semia.
  - » Martin Laskoayn-gua, Migel-Martinez-en semia.
  - » Pero, Johan Martin Mañaria-kuaren semia.
  - » Johan Bono, Johan Martinez Zamudio-ko Arriaga-kuaren semia.
  - » Johan Hengi-kua, Garzia Martinez Hengi-kuaren semia.
  - » Martin Martinez, Martin Martinez Larrano-kuaren semia.
  - » Johan Migel, Migel Migelez Epeloa-kuaren semia.
  - » Johan Iñiguez, Iñigo Sanchez Albistur-kuaren semia.
  - » Migel Perez Billafranka-kua, Pero Martinez Urondio-kuaren semia.
  - » Martin Martinez, Martin Ibañez Arbolancha-kuaren semia.
  - » Johan Martinez Gipuza.
  - » Pero Ibañez Bergara-kua, Johan Martinez Castillo-kuaren semia.
  - » Johan Perez, Pero Ibañez Bergara-kuaren semia,
  - » Pero Perez, Pero Perez Zababalegi-kuaren semia.
  - » Martin Martinez Gabika-kua, Gorria izendatua.
  - » Johan Ibañez, Johan Ortiz Nagiola-kuaren semia.
  - » Ochoa Perez, Pero Martinez Arteaga-kuaren semia.
  - » Martin Ugalde-kua, Martin Martinez Arteaga-kuaren semia.
- »Eta onla, aberi gorde biar zaizkatela beren askatasun ta lokabe emen aitatu diran mesedezko eskutitzen bitartez zituzten bezela; zergatik agintzen degun eskutitz ontan, nornairi jaso edo bildutzen ari diranai, edo jaso edo bildu biardutenai zernai errenta edo pisuzaidez edo beste edozein obikotitz edo diruz, edo Hebro-tik adurrako uri aundi ta chikik Gipuzkoa-kin batian ordaindu biar dizkiguten edozein pechaz, ez dezatela itsatsi, ez ere beren gauzik artu ez orain ta ez emendik aurrera eskutitz ontan aitatu diranai, ez ta ere beren arteko iñori, ez ta ere beste seme agiridun orain an bizi edo emendik aurrera ara bizitzera dijuaizenai, ezer pecha motarik, bada nere naya da gorde zaizkatela nere au-

rreko erregiak eta nik, eskutitzetan eman dizkategun mesediak, ala egiten ez badute guri seireun marabedi ordaindu biarko dizkigute. Ta gauza onen gañian agintzen diogu gure Gipuzkoa-ko meriyo nagusi Lope Diaz Roxas-kuari, baitare gure gatik edo bere gatik lur ayetan dabiltzan merioai, ta batzarre guziaz, alkate, merio, burusai, juradu, ekadoitzalle ta gure erreinuetako erri aundi ta chikietako agintari guziaz ez dezatela utzi iñorcho-re gure agindu aben kalte ezer egiten, ta biartu ditzatela agindu abek egitera ta iñork egingo balu ezer agindu aben kalte itsatsi ditzatela ta bakoitzari ekendu dezaizkatela esantako seireun marabedi ta gorde ditzatela nik berakin agintzen detana egiteko; bañan erabakia daukatala seine agiridun abek orain bizi diranak edo emendik aurrera an bizitzen diranak biartubak arkitzen dirala beren gorputzakin nik deitzen diotetanian, nik eskatzen ditudan aña nere laguntzarako juatia orain daukatan gudetara edo emendik aurrera izaten ditutenetara. Gauza ontzaz eman asi degu eskutitz au nere berunezko zigilluakin zigillatuba. Emana dago Jibraltar ondoko diagoitzan, Era-ko 1347-<sup>garren</sup> urteko (J. K. ondoko 1349) Dagonilla-ren 11-<sup>an</sup>.— *Fernan Sanchez*, Kastilla-ko Eskribau nagusiya.— *Gomez Fernandez Soria-kua*, Eskribaba.— *Ferran Sanchez*, *Gomez Fernandez*, Eskribabak.»

(Jarraituko da.)

## HERMENEGILDO SUSTAETA



# TOLOSA

(Jarraipena.)

GAON JUDUBA

Ikusi degu zein gogor ta sendo eukitzen ziyoten tolosarrak beren eskubideai, ukatubaz biar etzan pechik eskatzen ziotenian; asaldu degu era berian erregeak ongi arkitzen zituztela tolosarren egipenak gai abetan; bañan alaz guziaz ikusten dana argi ta garbi da: ziyo ta ziyo, batzubetan alde batera ta bestietan bestera, gelditu gabe sayatzen zirala erregeen ondorengiak, biar etziran pechak Tolosa-ko uria-ri kentzen.

Ala gertatu zan 1463-garren urtian. Gaon juduba, Bitoria-ko urkoa, etorri zan Tolosa-ra, ta gogorrian biartu nai izan zuben uria, urtiar-tako ta aurrerokuetako pecha, eskatua deitzen zana, ordaindu azteko.

Bai zekiten ordia tolosarrak ortarako eskubiderik etzeukala; orren-gatik ukatu ziran arren agindubak osatzera, ta batak gogor eta bestiak gogorra, azkenian il zuten Gaon juduba, batzuben iritzian Andia-ko dorrian, beste azkoren ustez Arteagaecha-n, orain 33-garren zenbakiyakin Antonio Elosegi edo Korrio-kalian dagon echian.

Eriyotza egin ondorian judubaren buruba jarri zuten urkarriaren muturrian, ta ala iruki zuten asaldubaz onla, beren lege ta eskubidearen kaltez zebiltzanai ziyoten gorroto neurrigabia.

Egun ayetan Ondarrabiyan zegon España-ko errege Enrike laugarrena, Franzia-ko errege Luis amaikagarrenarekin ikusketa batzuben izateko asmuan erri artara bilduba.

Jakin zubenian erregiak Tolosa-ko geitaera odolaria, oso asarretu zan, ta bere berotasunian artu zuben asmua tolosarrak gogor zatitze-kua. Etzan beñere asarretu ainbeste erregia, bere ondorengiak uria-ren kaltez diru billa juaten ziranian erregiaren aginteak beste aldera egon arren. Ez; orlaketan eskutitz-en bat gora bere dana antolatzen zan ge-yagoko egitekorik gabe. Baña jakin zubenian bere ondorenguaen au-

sardiya biziyaekin kitotu zutela tolosarrak, orduban etzuben neurririk erregiaren asarriak.

Asmo oyekin atera zan erregia Ondarrabitik Madid-a juateakuan, baña Tolosa-ra alderatu baño len uriko gizaseme guziak alde egin zuten ta eskutatu ziran inguruko mendiyetan.

Irichi zanian beaz erregia, etzuben arkitu Tolosa-ko urian, Gaon-en eriyotzarekin, kutsututakuetatik alerik ere, ta aurrera jua biarran arkitu zan, asmua zuben bezela inorcho-re zatitu gabe.

Etzan ordia orrenbesterekin amaitu gauza, ta tartian ekadoyak sarturik, asi ziran gauzak garbiyan jartzeko lanak egiten.

Orduban larritu ziran tolosarrak. Bildurbai ziran Gaon en eriyotza beren bizkar zeukatela, gaizki arkitu biar zutela.

Beren larriyan, Gipuzkoa-ko batzar-nagusira alderatu ziran esanaz erregearen gandik barkamena irichi zezala; bada esaguturik gaizki egin zutela erregearen ondorengua iltziakin, kontuban artu biar zala beren eskubidearen kaltez zebilela, lenago-re era berian beste asko ibildubak zirala, ta batzubekin ta bestiakin aspertubak zeudela, ta berotasunian egin zutela damu zuten eriyotza.

Batzar nagusiya bildu zan Azkoitiyan 1466-garren urteko Azaruan, ta ikusirik tolosarren eskapena, erabaki zuten erregeari bigaltzia ondoren euskerara biurtuta asaltzen degun eskutitza:

«Lenen chit altso ta almentsua, jaun ta erregia: Zure Azkoiti-ko urian batzar-nagusian bildu geran, zure ekurtari, meneko ta jayotar, zure Gipuzkoa-ko probintzi chit leñargi ta leyal-ian urietako agitridun ezkutarien okindariak muñ egiten diogu zure eskubari ta zure ontasunian zaitazten gera. Jakingo dezu, orain dala iru urte t'erdi, guchi gora bera, Franzia-ko erregiarekin ikusketak egiteko asmuhan zure probintzi ontara etorri zinanian, zure Tolosa-ko urian il zutela Gaon juduba, Bitoria-ko uriko urkoa; ta il zuten, berak erru aundia zubelako, zergatik Tolosa-ko uria-ri bere gallaldi ta lokabeak kendu nai zizkan, ta batit bat eskatuba deitzen dan obikotitzaren lokabeko gallaldia, biartubaz gañera aurrero-ko urtietakuak ere, zerorrek ontzat emana izan arren gallaldi ura; ta esan degun Gaon arrek ziyon zor zituzlela aurre-roko urteko eskatubak; esan zitzayon bein baño geyagotan ez sayatzeko uria-ren gallaldien kaltez, baña alferrik: orra nola bere erruz ta gallaldiak gordetzia gatik egin zan eriyotza. Eta nola, jaun almentsua, esan degun Tolosa-ko uria probintziyan dan urietan lenenguetakua dan, ta beti zure ekurtean sayatu izan dan, ta baita-re anaide onen atsegiñerako ta zure probintzi au zeti gordetzeko. Orrengatik eskatzen dizugu barka dezayozula Tolosa-ko uria-ri; bertako batzar, alkate, eki-

nagusi ta gizon prestuai Gaon judubaren eriyotza, ta eman dezazula ontarako biar dan barkameneko eskutitza. Era berian eskatzen dizugu eman dezazula beste eskutitz bat uri-batzar eta ekadai guziyak jakin dezaten zedorrek emana dala orain degun gallaldia, ta ez dezatela inor orren kaltez itsatsi, unatu edo asarre jarri, ta Tolosa-ko uria garbi geldi dedilla; orrela on egingo diyo Tolosa-ko uria-ri ta probintzi oni atsegin osu. Lenen chit altso ta almentsua, jaun ta erregia, Jaungoiko gure jaunak geiagotu ta goitalchatu dezala zure biziya bere ontasun done-rako. Eta eskamen au bigaltzen dizugu gure eskribabak ziazkaturik eta gure zigilluakin zigillaturik Azkoitiko batzar nagusian idatzia 66<sup>garren</sup> urteko Azarua-ren 15-an. Zure jaun altsuaren ekurtari beartsu, zure eskubari muñ ematen dion— *Domenjon Gonzalez.*»

Eskutitz oni etzitzayon erantzun. Tolosa-ko uria-k etzuben ezer kalterik izan Gaon-en eriyotzagatik. Beaz isillik badare barkatuba izantzun. Arrazoya bai zuben alderdi guzietatik.

Orduban ta orain ta denbora guzietan Tolosa-ko uriak gogorki euki izan diyo bere eskubideai, bere lege zarrai. Eta jende kemenetsu ta pizkorrak diran tokietan lokabeak gordetzen dira zendoki. Begira bez-tela Tolosa-ko uria-ri.

(Jarraituko da.)

HERMENEGILDO SUSTAETA



# TOLOSA

(Jarraipena.)

## PORTU LEGORRA

Tolosa-ko uria esagutu izan da denboren denboretatik Gipuzkoatik Naparrua-rako portu legorra, bai aruntzeako ta bai onuntzeako re. Ori bera agertzen da 1351<sup>-garren</sup> urtean Balladolid-ko kortietako liburuan, amalaugarren buruan.

Uri ontan bertan ordaintzen ziran erregeari zor zizaizkan emanbiarrak, eta uriak bere aldetik jartzen zituben sisak. Juan errege bigarrenak, Talaberan, 1442<sup>-gaeren</sup> urteko Abendua-ren 10<sup>-an</sup> eman zuben gallaldian agertzen zan ori argi asko, ta baita-re asaltzen da Gipuzkoatik Naparrua-ra gauzen jua etorrira-ko Tolosa-tik jarraitu biarra.

Ara zer ziyon, ordin aitatu degun gallaldi arrek:

«Jakín zazute zuben okindari Juan Martínez Gaztañaga-kuak adierazi digula zuben uria portu legorra dala ta izan dala lenagotik, orain amar ta ogei ta ogeitamar ta berrogei urtetik onera, ta denbora geyagotik ere bai, ta ez dala gizonik gogoratzen noiztik; eta esantako denbora oyek ezkeru Getari-tik eta Donosti-tik, eta beren iriguruetatik zi-joazen guztiak oitura zutela Tolosa-ko urian barrena juntia, ta uri ontan ordaindu izan dituzte beti amarren zarrak, eta neri erantzuten zaizkitan burniaren dialak eta Tolosa-ko uria-ren lasariak.....»

Ezin garbiyago argitaratu lengo denboretan Tolosa-ko uriak zituben eskubidiak, gallaldi onek asaltzen duben baño argiyago ta zuzenago.

Gallaldi au ontzat eman zuben Fuente de Sauko-n len aitatu degun erregiak berak 1443<sup>-garren</sup> urteko Agorrilla-ren 30<sup>-an</sup>. Errege kato-likuak berriz eman zuten ontzat beren alderditik Kordoba-n 1491<sup>-garren</sup> urteko Agorrilla-ren 9<sup>-an</sup>.

Tolosa-ko uriak seukan eskubide orren bitartez legorrez eta ichasoz peajeleku edo *aduanak* jarri arteraño, Tolosa-n zegon peajelekua ta an ikusiarasitzen ziran Gipuzkoa-tik Naparrua-ra, edo andik onera zebiltzan gauza guziak. Ala agintzen zuben erregien manuak eta ala egiten zan.

Gallaldi au ordia eztabai askoren bidia izan zan. Tolosa-ko uriak gogorki eukitzen ziyon eskubide oni ta alegin guztiyak egiten zituben ez bide berririk irikitzeko Naparrua-ra aldera, eraman etzeyen andik ez burni, mea, ikatz eta beste orlako gauza motik. Alegiñ oyek etziran alperrikakuak izan. ta beti bere alde erabaki zuten ekadoyak, gelditurik Tolosa bide bakarra Getari-tik eta Donosti-tik Naparrua-rako.

Ala erabaki zuben Balladolid-ko chanzilleriyak 1498<sup>-garren</sup> urteko Otsailla-ren 22<sup>-an</sup>, urte azkoz lenagotik ere erabaki izan zuten era berian.

Berastegi ta Elduayen-guak nai izan zuten 1570<sup>-garren</sup> urtian bide berri bat egin Naparrua-rako beren urien barrena zijuana, baño bere kalte alcha zan Tolosa-ko uria ta 1571<sup>-garren</sup> urteko Marchua-ren 16<sup>-an</sup> eman zan erabakideen bitartez, galerazi zitzayen len esan ditugun uriai, aurrera eramatia beren asmuak.

Gerosiago, 1598<sup>-garren</sup> urtian, Donostiyak eta Ernani-k nai izan zuten iriki bide berri bat Naparrua-ra, Urumea-ko ibar-barrena. Ontarako etziran jostatzen ibilli, armaz ornitu zuten jendia ta onez edo charrez, gogorrian arturik beren buru ezkubidia, asi ziran bide berriya egiten.

Ez ordia orrenbesterekin išildu tolosar jendia, armak bazituzten ayeke ere, ta gudarako bezela asi ziran moldatzen, ez bai zeuden uzteko ez bat eta ez beste, beti ain gogor eta sendo gorde izan zituzten esku-bideak.

Berri zorigaiztoko abek entzun ziranian ikaratu ziran Gipuzkoa guzian, ra odol isurtzeik izan etzeyen anai artian, bildu zan Bidania-n Done Bartolome-ren eleizan, emengo batzar buruba.

Batzarreak etzuben erabakide osorik artu ta laja zuben erregea-ren eskubetan ausi onen antolamentuba. Batzubei ta bestiai entzun ondorian, erabaki zuben erregiak etzeyela egin bide ura ta ez besterik ere. Berenakin atera ziran beaz tolosarrak ordu arte bezela. Gogorrian ez dagola ezer egiterik esagutu zan orduban. Bati bat tolosarren kalte darian. Jende pizkorra ta bulartsuba izan oi da beti Tolosa-ko urian.

Etzan ordia orrenbesterekin amaitu eztabaidako seta. Bide zabala ezin dan tokiyan bide sigorra egiten da, ta argitan ezin dana illunpetan.

Debekatu zan makiñabat aldiz Naparrua-ra biderik irikitzia, eragotsi zitzayen asi ziran guziaz, baña isilkako bidiak billatzen ziran, ta andik itsuli egiten zuten askok beren gauzakin Tolosa-ra batere alderatu-re gabe. Etziran isilik egoten tolosarrak, eragosten sayatzen ziran, baña askotan alperrik; eskututako gauzak ez baidira erresak argitaratzen.

Abetako bat 1675-<sup>garren</sup> urtian gertatu zan. Mandazai batzubek ziran ta beren gauzakin juan ziran Naparrua-ra, Oyarzun ta Goizueta-n barrrena. Jakin zutenian au, asarretu ziran tolosarrak eta eraigoratzeko bidian jarri ziran. Donostiarak ordia aspertubak zeuden ainbeste lokurakin. Izan ere atietan iruki Naparrua, ta nai ta nai ez Tolosa-tik juan asitzia gogorra zan. Ala beaz Donostiko alkatia atera zan mandazayen alde ta eskatu ziyon Gipuzkoa-ko batzar burubari askatu zitzala itotzen zituzten lokura ayek.

Ausi berri au erabakitzeko bi billera egin zituben Gipuzkoa-ko batzar nagusiyak: Basarte-ko Gurutze donean bat, Azkoitin bestia. Billera abetan etziran arraz ukatu Tolosa-ko uria-ren eskubideak, baka-rrik neurri bat eman zitzayen eskubide abei, ta erabaki zuten neurri ayetandik kanpora gelditzen zala mandazayakin gertatua. Eta onla erabakitzeakoan ausia, jarri ziran mandazayen alde, ta artu zuten asmua beren alde sayatzia ekadoi mota guziyen aurrian. Etzari geyagoren biarrik izan ausi au amaitzeko.

Orrenbesterekin izan zuten azkena, urtia juan ta urtia etorri ainbeste eztabaiantzako bide eman zuten eskubidiak. Geroztik ez da berri-tu urien arteko ausirik gauza aben batik. Bañan katiak baziran ayek, gogorraguak eta astunaguak dira gaur lepotik bera daukazkigunak.

## HERMENEGILDO SUSTAETA

(Jairraituko da.)

